

Molotov ala Dominguez?

NONSEI



Britainiar armadako Home Guard dibisioko soldaduak Molotov koktelen bidezko erasoaren entrenatzen, Bigarren Mundu Gerran.

FINLANDIA, 1939KO AZAROA. Neguko Gerra abiatu zen sobietarrek Europa iparraldeko herrialdea inbaditu zutenean. Ejertzito Gorria askoz indartsuagoa izan arren, finlandiarrek negu osoan eutsi zioten erasoari, 1940ko martxora arte.

Orduan, Viacheslav Mijailovitx Skryabin kanpo ministro sobietarrak —Molotov edo “mailu” ezizenez eza-guna— propaganda kanpaina bitxia jarri zuen abian. Informazioan eta, batez ere, desinformazioan maisua zela erakutsiz, irratia bidezko hainbat adierazpenetan esan zuen sobietarrek ez zirela Finlandian bonbak botatzen ari, finlandiarrentzako janariz betetako paketeak baizik. Sobietarren nagusitasunari aurre egiteko, finlandiarrek ahal zutena erabiltzen zuten, esaterako, botila sutzaileak. Eta Molotoven adierazpenei umorez erantzun zieten: “Molotovek janaria ekartzen badu, guk edaria jarriko dugu”. Sobietarren lehergailuei “Molotoven janari saskiak” esaten hasi ziren, eta finlandiarren su bonbei, berriz, “Molotov koktelak”.

Historiako liburuek diote Molotov koktelak lehenengoz Espainiako errepublikarrek erabili zituztela 1936ko gerran. Baina hemerrotekari erreparatu gero, antzeko arma piz-taileak mende bat lehenago ere erabili zituzten Espainian bertan, Gra-

nadako Motrilen, zehazki. 1831ko uztailean albiste hau agertu zen Madrilgo *La Gaceta* egunkarian:

“Calahonda eta Adrako uren artean [Motrilgo hondartzak] Josef izeneko txalupa kostazain espainiarrek kontrabando ontzi bat atzeman zuen. Ontziaren parera iristean, kostazainek ontzia nondik zetorren galdetu zuten, eta kontrabandistek kanoikadaz erantzun zuten. Kanoi sua batetik eta bestetik zebilela, abordatzea hasi zen. Gauzak horrela, txalupako patrioiak suzko hainbat flasko jaurti zituen kontrabando ontziaren aurka eta, ondorioz, eskifaiako kide guztiek uretan murgildu behar izan zuten. Uretatik hemezortzi gizon atera zituzten, erreta edo zaurituta. Gero, beste zortzi oraindik kontrabando ontzian zeudela antzeman zituzten, bi artilleria pieza laburrekin eta kontrabandozko salgaiekin batera. Txalupako eskifaiari dagokionez, Manuel José Dominguez karabinari lotinanta, kostazaineko komandantea, larriki zauritu dute, eta kontramaisiak eta bi marinelek ere zauriak dituzte”.

Hortaz, finlandiarren umoreari erreparatu ordez, jatorri historikoa aintzat hartuko bagenu, beharbada, Josef koktela edo Dominguez koktela esango genioke gailu ezagunari. ■



Arrastoak

Industria Iraultzako giza iratzargailuak

XVIII. MENDEAREN amaieran, Ingalaterran milaka langilek goizera ordu jakinetan esnatu behar zuten industria jaioberrietan lan egiteko. Iratzargailua orduantxe asmatu zuen Levi Hutchins-ek —1878an, hain zuzen—, baina asmakizuna ez zen berehala jendaratean zabaldu, are gutxiago langileria txiroan.

Horregatik, *knocker-up* edo *knocker-epper* lanbidea sortu zen. *Penny* gutxi batzuen truke, giza iratzargailu horiek langileak adostutako orduan esnazarazten zituzten.

Behaldez bizi zirenak ate joka esnatu ohi zituzten *knocker-up*-ek. Bestela, makila luzeak, gehienetan banbu kanaberak, erabiltzen zituzten leihoak jotzeko. Eta kanaberak iristen ez zirenean ufatutu modukoen bidez —eta tiroak ondo doitu— ilarrak jaurtitzen zituzten langileen leihoetara.

Charles Dickensek *Great Expectations* nobelan deskribatu zuen lanbideak 1920ko hamarkada arte biziraun zuen. ■



ABANDONED PICTURES

Knocker-up edo giza iratzargailua 1900. urte inguruan.